

Esp.kodea: 2026PHEL0001
Titularra: ARRASATEKO UDALA

Gaia: CATP 2025: "Lan Aukera Eraikuntza 2"
8 langile (igeltsero eta pintura lanak)
hautaketa prozesua

HAUTAKETA PROZESUAREN IRIZPIDEAK

1/ KONTRATAZIOA

LANPOSTUA	PROIEKTUA	JARDUNA / IRAUPENA
8 peoi langile	LAN AUKERA ERAIKUNTZA 2, espazio publikoen mantenuari buruzko enplegu-formakuntza proiektu bat, zeinaren bitartez Arrasateko Udalaren ardurapeko hainbat kirol instalazio eta espazioen kalitatea hobetzeko egokitzapen-lanak egitea, zehazki igeltserotza eta pintura lanak.	6 hilabeteko lan kontratua, %75 jardunean (2026ko martxoaren 23tik 2026ko irailaren 23ra, aurreikusita). Programari atxikita, - 120 orduko formazioa, lan orduetatik kanpo, laneratzeko zeharkako edukiei buruz, eta arlo profesionaleko ezagupenei buruz. - Lanerako orientazioko 6 ordu pertsonako, banakako saiotan.

2/ KONTRATATZEKO BALDINTZAK

Hautagaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Arrasaten erroldatuta egotea gutxienez hautagaitza lan-eskaintzara bidaltzen duten unetik aurrera.
- Kontratututako pertsonak langabetuak izan behar dira, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile gisa alta egon, bai hautagaitza enplegu-eskaintzara bidaltzen den momentuan bai kontratua hasteko egunaren aurreko egunean.
- Kalteberatasun-egoeran edo bazterketa-egoeran edo -arriskuan egotearen baldintza horietakoren bat beteta:
 - 45 urtetik gorako pertsonak.
 - DSBEaren edo BGDSaren titularrak edo onuradunak.
 - Luzaroko langabeak: alegia, hautagaitza bidaltzen den egunaren aurrekoan lanik gabe eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan lan-eskatzaile gisa inskribatuta eta alta emanda egonik, egoera horretan hautagaitza bidali aurreko 540 egunetan gutxienez 360 egunez egon direnak.
 - Kualifikazio baxuko langabeak: enplegu-eskaeran 23. mailatik gorakoa ez den bitartekotzako prestakuntza-maila adierazi duten pertsonak: DBHko graduatu titulua edo baliokidea.
 - Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak, laguntza espezifikoak jasotzen dituztenak edo lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituztenak –harrera-baliabideetatik etortzeagatik edo bestelako inguruabar batengatik–, egoera berezi hori egiaztagiri bidez egiaztatuta dutenak eta enplegu-eskaeran izaera berezi horren aipamena dutenak.
 - % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila aitortuta dutenak.

Esp.kodea: 2026PHEL0001
Titularra: ARRASATEKO UDALA

Gaia: CATP 2025: "Lan Aukera Eraikuntza 2"
8 langile (igeltsero eta pintura lanak)
hautaketa prozesua

- Gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan daudenak, Gizarte Zerbitzuek egiaztatuak.
 - Alboko esklerosi amiotrofikoa duten eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaile ez-profesionalak.
 - Kalteberatasun-egoeran dauden eta enplegu-politiketarako lehentasunezko arretako kolektibotzat hartzen diren beste pertsona batzuk, Enpleguari buruzko otsailaren 28ko 3/2023 Legearen 50. artikuluan ematen duen definizioaren arabera.
- d) Gaztelaniazko maila nahikoa edukitzea, ahoz zein idatziz, formazio saioetan eta lan jardunean aritzeko.
- e) 2024-2025eko deialdian ("Lehentasunezko arretako kolektiboentzako enplegu-proiektu integralak") diruz lagundutako proiekturen batean parte hartu dutenak ezingo dira enplegu-proiektu integralen onuradun izan, kalteberatasun-egoeran egoteari buruzko baldintza bete arren. Nahikoa parte-hartzaile ez egoteagatik ezinezkoa bada proiektua abian jartzea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak pertsona horiek parte hartzeko baimena eman ahalko du, txosten justifikatzaile bat aurkeztu ondoren egoitza elektronikoaren bitartez.
- f) Igeltserotza eta pintura lanetan aritzeko osasun ezintasunik edo bestelako eragozpenik ez edukitzea.

3/ HAUTAGAIEN AURRETIKO AUKERAKETA

LANBIDEk egingo du hautagaien aurretiko aukeraketa, aurreko puntuan ezarritako b), c) eta e) baldintzen arabera.

4/ HAUTAGAIEN AZKEN AUKERAKETA

8 hautagaien aukeraketa Udalak egingo du, egokitasun probak eginez eta hautagaiek egiaztatutako merituen baloratuaz.

5/ EPAIMAHAIA

Hautaketa prozesuko kalifikazio epaimahaia honela eratuko da:

Epaimahaiburua:

- Udal teknikari bat edo arlo-burua.

Epaimahaikideak:

- Udaleko karrerako funtzionario bat.
- Karrerako funtzionario bat edo lan kontratudun finkoko langile bat.
- Udaleko karrerako funtzionario bat.

Idazkaria:

- Udal funtzionario bat.

6/ INFORMAZIOA ETA KONTSULTAK

Deialdi honi buruz Udalak hartzen dituen erabakiak (oharrak, hautagaien zerrenda, hautaketa frogaren informazioa eta abar) udaleko web orrian argitaratuko dira (www.arrasate.eus) eta interesdunen eskura jarriko dira BAZen, Biztanleentzako Arreta Zerbitzuan.

Deialdi honi buruz interesdunek behar duten edozein informazio osagarri jasotzeko, hona jo dezakete:

Esp.kodea: 2026PHEL0001
Titularra: ARRASATEKO UDALA

Gaia: CATP 2025: "Lan Aukera Eraikuntza 2"
8 langile (igeltsero eta pintura lanak)
hautaketa prozesua

- **BAZ (Biztanleentzako Arreta Zerbitzua)**
 - Arano eta Gartzia maisu-maistra 8
 - Tel.: 943 252000
 - baz@arrasate.eus

7/ HAUTAKETA ARAUAK

LANBIDEk egindako hautagaien aurretiko aukeraketan onartutako hautagaiei, Arrasateko Udalak antolatuko duen proiektua aurkezteko hitzaldi informatibora deituko zaie. Behin proiektua ezagututa, interesatuta daudela adierazteko, "baimen informatua" dokumentua sinatu beharko dute proiektuan parte hartzeko hautaketa prozesuan jarraitzeko.

Interesa adieraziko duten hautagaiek behean azaltzen diren probak egin beharko dituzte, eta merituen balorazioa egingo zaie, honela:

- **Merituak: (20 puntu)**
 - B gidabaimena: 10 puntu.
 - Kalteberatasun-egoeran edo bazterketa-egoeran edo -arriskuan egoteko kontratatzeko baldintzen atalean zehaztutako kasu baten baino gehiagotan egotea: bigarren kasutik aurrera 5na puntu, gehienez 10 puntu.
- **Probak: (80 puntu)**
 - *Konpetentzia linguistikoko proba:* Gaztelaniazko konpetentzia linguistiko nahikotasuna neurtzeko proba. 0-20 puntura baloratuko da eta gutxienez 10 puntu atera beharko dira aurrera egiteko.
 - *Elkarrizketa:* motibazioa, parte hartzeko prestutasuna eta aukeraren beharra neurtzeko elkarrizketa egingo da. 0-10 puntura baloratuko da eta gutxienez 5 puntu atera beharko dira aurrera egiteko.
 - *Teoriko-praktikoa:* Igeltsero eta pintura arloari buruzko proba teoriko-praktikoa. 0-50 puntura baloratuko da eta gutxienez 25 puntu lortu beharko dira aurrera egiteko.
- **Hautaketa:** Behin puntuazioaren arabera hautagaien zerrenda osatuta, kontratatuetako 3 pertsona emakumeak izango dira, beti ere probak gainditu dituzten hautagaien artean emakume nahikoa balego.